

EUSKAL PRESOK. Etxerat elkarteak balorazio gazi-goza egin du

Iruñeko espetxera ekarriko dute Barandalla, baina 92. artikulua ukatu egin diote

Aske ez uztearen kontra helegitea jarriko dute Espetxe Zaintzan

Erredakzioa | IRUÑEA

Zaragozako Espetxe Zaintzako epaitegiak Bautista Barandalla Etxarri-Aranazko preso Iruñeko kartzelara ekartzea erabaki du, baina ukatu egin dio gaixotasun larria izanik 92. artikulua aplikatu eta aske uztea. Etxerat elkarteak jakinarazi zuen berria, atzo, eta, Euskal Herriratzeagatik pozik azaldu arren, aske utzi ez dutelako balorazio «negati-boa» egin zuen.

Barandallak kolitis ultzeraduna du. Gaixotasun larri eta kronikoa da, eta, horregatik, hura ez aske uztea kritikatu zuen Etxerat-ek. Erabaki horren aurkako helegitea jarriko dutela adierazi zuen elkarteak. Barandallaren osasunak onera egin dezan, janari garbia, medikuen jarraipen zehatza, garbitasuna eta abar behar dituela oroitarazi zuten. «Hori guztia espetxean izatea ezinezkoa da», Etxeratak azaldu zuenez. Horren erakusle dira, elkartearen iritziz, Zaragozan kartzelaturatuta egon den denboran Servet erietxera

MEDIKUEN JARRAIPENA

Iruñeko kartzelan konfiantzako medikuek ikusiko dute, eta Nafarroako Erietxean jarraipena egingo diote

OSPITALEAN SARRI

Apirilean ebakuntza egin ziotenetik hainbat aldiz itzuli behar izan du ospitalera Barandallak

egin behar izan dituen joan-etorriak.

Bestetik, Zaragozako kartzelatik Iruñekora ekartzeko erabakiagatik pozik agertu zen Etxerat. «Bere senideen eta inguru-nearen berotasuna izango du». Era berean, Nafarroako Erietxe-ko Digestio Aparatuaren arloko Zerbitzuan gaitzaren jarraipena egingo duela erantsi zuen, eta

espetxean konfiantzako medikuek ikusi ahal izango dutela.

Duela bi urte atzeman zioten

Barandallari duela bi urte atzeman zioten gaitza, baina ez zioten tratamendu egokirik eman, eta ondorioz larriagotu egin da. Aurtengo martxoan premiaz eraman zuten ospitalera, eta apirilean heste lodia ia osorik kendu zioten. Maiatzean senda agiria eman eta espetxera itzuli zuten, baina geroztik hainbat aldiz eraman dute berriz ospitalera hesteetako butxaduragatik.

Zaragozako Espetxeko Juntak apirilean erabaki zuen Barandalla Iruñera eramateko eskatzea, baina Espetxe Erakunde-
Zuzendaritzak beti aurkako jarrera azaldu izan du. Euskal Herrian eta kartzelatan ere mobilizazio eta ekimen ugari egin dira Barandalla aske utz dezaten. Zaragozako espetxean, maiatzaren 13az geroztik txandakako gose greba egin dute. Halaber Etxarriko Udaleko ordezkari bat Zaragozako kartzelara joan zen.

EPAITEGIAK. Iaz, herriko festetan, pistola atera zuen haietako batek

Bi guardia zibil zigortu dituzte, Leitzako taberna baten jabeari mehatxu egiteagatik

Erredakzioa | DONOSTIA

Iruñeko Zigor Arloko hirugarren epaitegiak seina hilabeteko espetxe zigorra eta 600 euroko isuna jarri die bi guardia zibili, iaz Leitzako (Nafarroa) festetan Gaztañaga tabernan sartu eta pistolekin nagusiari mehatxu egiteagatik. Ivan C.D. eta Edgar F.A. dira zigortutako guardia zibilak, 24 urtekoak.

Epaia araberan, iazko abuztuaren 13an 4:45 aldera bi akusatuek ez ziren lanean ari, eta dezente edan ondoren kuartelera joan ziren euren pistolen bila. Pistolaz gain, fusil bat ere hartu zuen haietako batek, eta Gaztañaga tabernara joan ziren, eta han fusila erakutsi. Tabernaren jabeak, edaririk ez ziela aterako esateaz gain, SOS Nafarroara

hots egin zuen. Orduan, fusila ondoko obra batzuetan utzi, eta berriz tabernara itzuli ziren. Tabernariak edaririk ez ziela emango esan ondoren mehatxu egin zioten, bi tiro egingo zizkiotela esanez: «Zurekin hasi, eta gero beste guztiekin segituko dugu», esan zioten.

Tabernan zegoen zenbait jende giroa lasaitzen saiatu zen, eta tabernariak edaria zerbitzatu zien bi guardia zibilei. Hala ere, tabernara jende gehiago sartu zenean, Ivan C.D.-k pistola atera zuen eta haiengana apuntatu. Une horretan zenbait guardia zibil sartu ziren tabernan, eta bi akusatuek eraman zituzten.

Gertaera horiei buruzko epaiketa ekainaren 28an egin zen. Bi guardia zibilek esan zuten gertaeren egunean oso moz-

kortuta zeudela. Fusilik ez zutela tabernara eraman eta tabernako nagusiari mehatxurik ez ziotela egin deklaratu zuten. Ivan C.D.-k esan zuen jende multzo batek inguratuta ikusi zuela bere burua, eta horregatik atera zuela pistola.

Edanda egotea aringarri gisa

Epailearen iritziz, akusatuen kontakizunak «inkoherentzia puntuak» ditu, pistolak kuartellean hartu ondoren leihotik atera baitziren beste guardia zibilek ikusi ez zituzten. Halaber, fusila obretan ezkutatzea aipatzen du epaileak.

Aldiz, tabernaren jabearen lekukotasuna «erabatekoa, serioa eta argia» izan zela dio epaiak, eta tabernariak esandakoa lekukoek «tinko eta ziurtasunez berretsi» zutela dio.

Edanda egotea aringarri gisa aplikatu diete bi guardia zibilei. Izan ere, bai akusatuek bai lekukoek berretsi dute horrela zudela.

LAGURREAN



LUIS TEJIDO / EFE

Renault enpresako hiru furgonetak, erasoaren ostean.

Renaulteko kontzesionario bati eraso diote Loiu

Loiuko Renault auto enpresaren kontzesionario bati eraso zion atzo talde batek. Ertzaintzaren arabera, eraso goizaldeko 1:45 aldera izan zen, eta suak kalte egin zien kanpoan aparkatuta zeuden enpresako hiru furgonetari. Sutea eragiteko erregaia eta suziriak erabili zirela adierazi dute iturri horiek. Loiuko EAJk agiria kaleratu zuen eraso gaitzesteko eta kalte-tuei elkartasuna adierazteko, eta PPK adierazi zuen «erasoa egin dutenek kalea euren» dela uste dutela.

PSNko hiru zinegotzik batzordeetako karguak utzi dituzte Altsasun

Altsasuko PSNko hiru zinegotziek Hirigintza, Emakume eta Gazteria udal batzordeetan zituzten lehendakari karguak utzi dituzte, beren «babesgabezia» salatzeke. Alkateak zinegotzi bat kargutik kendu zuen, batzordera deitzaile uko egin ziolako. «Azken plonon alkateak zinegotziak irain zituzten» utzi zuela argudiatu zuen zinegotziak.

Xabier Erbina Baionako polizia etxean aurkeztu da bere kabuz

Xabier Erbina bere kabuz aurkeztu zen atzo arratsaldean Baionako polizia etxean. Iragan asteartean Akize ondoko Riviere herrian atxiloturiko Bernardo Fidel Erbina eta Kontxi Zubillagaren semea da Xabier Erbina. Senar-emazteak, Amaia eta Miren Erbina alabekin batera, gaur eramango dituzte Laurence Levert epailearen aurrean deklaratzera.

Zabaleta, Tolosa eta Kastresana etakide hilak omenduko dituzte gaur Donostian

Gaur iluntzean omenaldia eskainiko zaie Luisma Zabaleta, Antxon Tolosa eta Olaia Kastresana zendutako etakideei, Donostian. Olaia Kastresana iazko uztailaren 24an hil zen, Torrevellan, esku artean zuen lehergailuak eztanda egin zionean. Antxon Tolosa era berean hil zen, 1983ko uztailaren 13an, Donostiako Urgull mendian. Luisma Zabaleta, berriz, Guardia Zibilak hil zuen, tiroz. Alde Zaharreko Konstituzio plazan ekitaldi politikoa egingo da gaur, gaueko 22:00etan.

Fiskalak 10 urteko espetxe zigorra eskatu du Garcia Gaztelu presoarentzat

Parisko Auzitegi Korrekzionaleko fiskalak hamar urteko espetxe zigorra eskatu zuen atzo Xabier Garcia Gaztelu euskal presoarentzat, gaitzaren taldeko kide izatea leporatuta. Stephane Robidartentzat, berriz, zazpi urteko zigor eskaera egin zuen. Epaia datorren ostira-lean jakinaraziko dute.

Presoen aldeko elkartasun eguna egingo dute Errezil eta Zizurkil berriz

Errezil eta Zizurkilgo herrietan Euskal Preso Politikoen aldeko Elkartasun Eguna egingo dute bihar. Eguerdiko 12:00etan herri kirolak egingo dira, eta 14:00etan herri bazkaria. Ondoren, besteak beste, trikitilariak eta dantzariak izango direla iragarri dute bi herrietako presoen taldeek.